

ERABAKIA, Gipuzkoako Foru Diputazioko Diputatuen Kontseiluak 1988eko uztailaren 28an, Tolosako Usabal-Hegoaldeko Plan Partzialaren Egitasmoari buruzko espedientearen hartutakoa.

5364

GARRAOEN BIZKAICO PARTZUERGOA

DEIALDIA, Plangintza eta Proiektu-zerbitzuko Buruzagizateko, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari bat lan-kontratuz eta behin-betirako hariztegi buruzkoa.

5365

BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Ezohizko Batzar Nagusirako **DEIALDIA.**

5370

ACUERDO adoptado por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Guipúzcoa el 28 de julio de 1988, en el expediente relativo al Proyecto de Plan Parcial de Usabal-Sur de Tolosa.

5364

CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

CONVOCATORIA para la selección, con carácter laboral y permanente de un Ingeniero de Caminos, Canales y Puertos, para la Jefatura del servicio de Planificación y Proyectos.

5365

CAJA DE AHORROS VIZCAINA

CONVOCATORIA de Asamblea General Extraordinaria.

5370

Euskadi Osorako Erabakiak **Disposiciones Generales del País Vasco**

KULTURA ETA TURISMO SAILA

2029

1988ko abuztuaren 30eko AGINDUA, Suspertzaile sozi-kulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauak ezartzen dituena.

Martxoaren leko 47/88 Dekretuaren Azken Xedapenetako Lehenengoak, Dekretu hori garatzeko eta gauatzeko beharreko izan daitezen arauak emateko ahalmena ematen dio Kultura eta Turismo Sailburuari.

Aipatu Dekretuaren 7-1. atalak xedatzen duenez, Kultura eta Turismo Sailak jarriko ditu onartutako Susperketa soziokulturalen Eskolek ikasturte bakotzean eman beharko dituzten gaikuntzarako gutxienezko egitarauak; bestalde, 6-2. atalak ezartzen duenez, eskatutako titulazioa eta eman daitezen gaietako irakasle espezialisten klaustroa osatuko duen gutxienezko irakasle-kopurua, Kultura eta Turismo Sailak erabakiko ditu.

Horren ondorioz, Kultura eta Turismo Sailak ondoko arauok eman ditu:

1. *Atala.*— Martxoaren leko 47/88 Dekretuaren 7. atalean aditzera ematen diren Suspertzaile Soziokulturalak gaitzeko ikastaroek, ondoko urratsok izango dituzte:

- a)— Oinarritzko gaikuntzarako urratsa.
- b)— Espezializaziorako urrats teoriko-praktikoa.
- c)— Urrats praktikoa.

Horrezaz gain, ikasle bakoitzak ikerlan bat eta azken txostena edo tesina egin beharko ditu.

2. *Atala.*— Oinarritzko gaikuntzarako urratsak 450 ordu izan beharko ditu gutxienez; urrats horretan, Agindu honen Eraskinean aditzera ematen diren gaiak irakatsiko dira.

3. *Atala.*— Espezializaziorako urrats teoriko-praktikoa gainditutzat joko da, gutxienez 31 kreditu lortutakoan. Kreditu baten jabe egiteko gutxienez 10 irakastordu egin beharko dira.

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO.

2029

ORDEN de 30 de Agosto de 1988, por la que se establecen los programas mínimos de formación para Animadores socioculturales.

La Disposición Final Primera del Decreto 47/88, de 1 de Marzo, faculta al Consejero de Cultura y Turismo para dictar las normas necesarias en orden a su desarrollo y ejecución.

El artículo 7-1 del citado Decreto dispone que el Departamento de Cultura y Turismo establecerá los programas mínimos de formación que las Escuelas de Animación Sociocultural reconocidas habrán de impartir en cada curso; el artículo 6-2 dispone que la titulación requerida y el número mínimo de profesores que compondrán el claustro de profesores especialistas en las diferentes materias que se imparten será determinado por el Departamento de Cultura y Turismo.

En consecuencia, este Departamento ha tenido a bien dictar las siguientes normas:

Artículo 1.— Los cursos orientados a formar Animadores Socioculturales a que se refiere el artículo séptimo del Decreto 47/88, de 1 de Marzo, constarán de las siguientes etapas:

- a)— Etapa de formación troncal.
- b)— Etapa teórico-práctica de especialización.
- c)— Etapa práctica.

Además cada alumno deberá realizar un trabajo de investigación y memoria final o tesina.

Artículo 2.— La etapa de formación troncal deberá tener una duración mínima de 450 horas, a lo largo de las cuales se impartirán los contenidos temáticos que se incluyen en el Anexo a la presente Orden.

Artículo 3.— La etapa teórico-práctica de especialización se considerará superada una vez conseguidos un mínimo de 31 créditos. La asignación de cada crédito deberá corresponder como mínimo a diez horas lectivas.

Lortu beharreko 31 kredituetatik, gutxienez 10 ihardute-sektoreen arloko monografikoren batekoak izan beharko dute derrigorrez, eta beste 10, baliabide eta tekniken alorrekoak. Gainerako kredituak aukerakoak izango dira, aipaturiko bi alorretako edozeinetan eman-dako monografikoen artean hautatu ahal izango dituelarik ikasleak. Monografiko horiei dagozkien gaiak, Agindu honi atxikiriko Eraskinean daude azalduta.

Hala ere, Eskolek egitarauak hobeto egoki ditzaten eta gaiak garatzerakoan bikoiztasunik gerta ez dadin, oinarritzko gaikuntzarako urratsean eta espezializazio-ko urrats teoriko-práktikoan sarturiko gaien artean, %10eko gorabehera onartuko da, gehienez, guztira eska-tutako ordu-kopuruuan.

4. Atala.- Urrats praktikoak 240 ordu izan beharko ditu gutxienez modalitate ez-trinkoa, eta urrats hori ikastaroaren urrats teorikoarekin batera egin ahal izango da. Salbuespenez, urrats praktikoa modalitate trin-koan egiteko aukera izango da, oinarritzko gaikuntzara-ko urratsa eta espezializazio bukatu ondoren.

Aipatu urratsa burutzeko, ikasleak ihardute-proiektu jakin bat gauzatuko du; Eskolako irakaslegoak, tutoriza-sistemaren bidez, absiku eta ikuskatze-lanak beteko ditu. Urratsa bukatu ondoren, ikasleak sintesia eta balorazio pertsonala gauzatuko du, tutoreak ebaluatuko diolarik lan hori.

5. Atala.- Ikerketa-lana eta tesina edo azken txostena egiteko ikasleak eskolako irakaslegoaren aholkuak izango ditu; eta irakaslego horrek, tutoriza-sistemaren bidez, aipatu ikerlanak ikuskatuko du. Irakaslegoak, halaber, ikasleak aurkez ditzan proiektuak aldez aurre-tik onetsi, jarraipena egin, babez eskaini eta ikerlan eta memoria edo tesina ebaluatu beharko ditu.

6. Atala.- Matrikulaturiko ikasle bakoitzaren gaitze-prozesua, espediente pertsonal batean jasoko dute eskolek; espediente horretan, urrats guztietan eta eba-luaketa partzialetan egindako jarraipena adieraziko da. Ondoren, kurtso bakoitzari dagozkion aktak egingo dituzte; delako aktetan, kurtsoko urratzen ebaluaketen emaitzak (aplika daitezen ebaluazio-erizpideen arabera, zeinak kurtsoko txostenean azalduko bait dira) eta ikasle bakoitzaren egokitasunari buruzko azken balorazioa geratuko da jasota, ikaslea gai den edo ez adieraziz.

7. Atala.- Talde nahiz norbanako mailan ikasleak bere gaikuntzan aktiboki partehar dezan, egokitzat jo daitezten mekanismoak ezarriko dituzte eskolek. Kurtso-ko ikasle-kopurua mugatua izango da, ezin izango da inola ere kurtso bakoitzean 25 ikasle baino gehiago izan.

8. Atala.- 1. Eskolek, eman ditzaten gaietako, gutxienez, 10 irakasle espezialistez osaturiko klaustroa izan beharko dute. Organograma, gutxienez, hiru departamen-to edo alor bereiziko dira, hain zuzen ere, lehenengo atalean adierazitako hiru urratsei dagozkienak. De-partamentu bakoitzaren buru gisa, alor edo departa-mentuko koordinatzaile bat izango da.

2. Aurreko idazatalean adierazitako irakaslegoak, astiaren hezkuntza-alorrean edo susperketa soziokultu-relean onartutako titulu edo diplomaren baten jabe izan beharko du, edo aipatu alorretan gutxienez 4 urteko esperientzia izan. Gainera, aipatu irakaslegoaren %50ak

De los 31 créditos a conseguir, obligatoriamente al menos 10 corresponderán a alguno de los monográficos incluidos en el área de sectores de intervención y otros 10 a alguno de los monográficos referentes al área de técnicas y recursos, siendo los restantes créditos optativos entre los monográficos ofertados en cualquiera de las dos áreas anteriormente citadas, cuyo desarrollo temático se incluye en el Anexo a la presente Orden.

No obstante, en aras de facilitar una mayor adaptación de los programas por parte de las Escuelas y evitar posible duplicidades en el desarrollo de los temas, se podrá compensar el total de horas exigidas hasta un máximo del 10% de oscilación en la impartición de los contenidos temáticos incluidos entre la etapa de formación troncal y la etapa teórico-práctica de especialización.

Artículo 4.- La etapa de prácticas deberá tener una duración mínima de 240 horas en modalidad extensiva que podrá simultanearse con el desarrollo de la parte teórica del curso. En casos excepcionales se podrá realizar esta etapa en modalidad intensiva una vez finalizada la etapa de formación troncal y la etapa de especialización.

Esta etapa se realizará conforme a un proyecto concreto de intervención elaborado por el alumno bajo el asesoramiento y supervisión del profesorado de la escuela mediante el sistema de tutoría. Al final de la etapa el alumno elaborará una síntesis y valoración personal, que será evaluada por el tutor.

Artículo 5.- El trabajo de investigación y memoria final o tesina serán igualmente asesorados y supervisados por el profesorado de la escuela mediante el sistema de tutoría, debiendo aprobar previamente los proyectos elaborados por el alumno, realizar el seguimiento y apoyo necesario y evaluar el trabajo de investigación y la memoria o tesina.

Artículo 6.- Las escuelas recogerán en un expediente personal el proceso de formación de cada alumno matriculado, haciendo constar el seguimiento efectuado en cada una de las etapas y las evaluaciones parciales, a la vista de las cuales extenderán las actas correspondientes a cada curso, en las que constará el resultado de las evaluaciones de cada una de las etapas del curso (según los criterios de evaluación que se apliquen, que serán consignados en la memoria del curso) y la valoración final sobre la idoneidad de cada alumno, haciendo constar la consideración de apto o no apto.

Artículo 7.- Las escuelas establecerán los mecanismos que crean más oportunos dirigidos a propiciar la participación activa del alumno en su propia formación tanto a nivel individual como grupal, limitando el número de alumnos por curso, que en ningún caso podrá superar un máximo de 25 alumnos por curso.

Artículo 8.- 1. Las escuelas deberán tener un claustro de profesores formado por un mínimo de diez especialistas en las diferentes materias que se imparten. En el organigrama se distinguirán al menos tres departamentos o áreas, que se corresponderán con cada una de las tres etapas recogidas en el artículo primero, al frente de cada una de las cuales figurará un coordinador de área o departamento.

2. La totalidad del profesorado de la escuela exigido en el párrafo anterior deberá estar en posesión de algún título o diploma reconocido en el campo de la educación en el tiempo libre o de la animación sociocultural, o tener una experiencia mínima de 4 años en dichos

unibertsitateko titulatua izan beharko du eta horietatik %25ak unibertsitate-titulua Gizarte-Zientzietan edo Hezkuntza Zientzietan.

9. Atala.- Asti Libreko Pedagogiatik hartuta irakas-kintza-ihardupen egokia egiazatzeko, martxoaren leko 47/88 Dekretuaren bigarren atalak ezartzen duenez, onarpene-skaera aurkeztu zeneko organoak txosten bat egingo du haur eta gazteen Asti Libreko Eskola gisa izandako eskarmentuari buruz, delako eskolaren kalitate, egokitasun eta egokitzapen maila zehazteko; horrettako, entitate eskatzaileari interesgarritzat jo dadin informazio edo dokumentazioa eskatu ahal izango zaio. Aipatu txostenaren emaitzak ikusi ondoren, dagokion erizpena emango da, entitate eskatzailea Susperketa Soziokulturaleko escola aitortu behar denentz adieraziz.

10. Atala.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak eta onesprena eman dezan Foru Diputazioaren Kultura Departamentuak, eskoien ebaluazio-erizpideen aplikazio zehatza aldatzea proposatu, iradoki edo aldaketa hori egitera behartu ahal izango dituzte Eskolak; bi erakundeok, halaber, egokitzat jo ditzaten aldizkako ikuskaketak egiteko ahalmena izan, eta kurtsoaren garapenari buruzko txosten partzialak eskatu ahal izango dizkiete eskolei. Aipatu txostenak, kurtsoaren lehen eta bigarren herenean eskatu ahal izango dira, eskolak kurtso hasieran aurkeztutako proiektuarekin ondorengo garapena bat datorren edo ez egiazatzeko.

11. Atala.- Onesprena jasoa izanik eta horrettako eskaeran aurkeztutako edukinean gerora aldaketaren bat egin nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Komunitate-Ekintzarako Zuzendaritzari edo onesprena eman dezan Foru Diputazioaren Kultura Departamentuari jakinarazi beharko zaio, hasierako baldintzak ez direla aldatzen egiaztu ahal izan dezaten. Delako baldintzak aldatzekotan, aipatu organismoek espresuki onetsi beharko dute aldaketa.

12. Atala.- Behar bezala onartutako Eskolek eman ditzaten Susperketa Soziokulturaleko ikastaroek ezingo dute inola ere, bestelako curriculum akademikoan sarturik egon. Uneoro, Susperketa Soziokulturaleko ikastaroen espezifikotasuna gorde beharko da, bai edukinetan bai irakasteko orduan.

campos. Además, un 50% de dicho profesorado deberá ser titulado universitario, de los cuales el 25% deberá ser titulado universitario en Ciencias Sociales o Ciencias de la Educación.

Artículo 9.- Con objeto de contrastar la adecuada actividad docente desde la Pedagogía del Tiempo Libre a que hace referencia el artículo segundo del Decreto 47/88, de 1 de Marzo, el órgano ante el que se hubiera presentado solicitud de reconocimiento elaborará un informe sobre la experiencia como escuela de Tiempo Libre infantil y juvenil, que determine el grado de calidad, idoneidad y adecuación, para lo cual se podrá recabar de la entidad solicitante aquella información o documentación que se considere de interés. A la vista de las conclusiones del citado informe se emitirá el correspondiente dictamen que aconseje o no el reconocimiento como escuela de Animación Sociocultural a la entidad solicitante.

Artículo 10.- El Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco y el Departamento de Cultura de la Diputación Foral que hubiese otorgado el reconocimiento podrán proponer, sugerir e incluso obligar a las Escuelas a modificar la aplicación concreta que hicieren de los criterios de evaluación; así mismo podrán realizar las inspecciones periódicas que estimen convenientes, pudiendo recabar informes parciales sobre la marcha del curso, que podrán coincidir con el primer y segundo tercio del desarrollo del curso, con el objeto de contrastar su adecuación al proyecto inicial del curso presentado por la escuela.

Artículo 11.- Toda modificación posterior al reconocimiento respecto al contenido de la solicitud de reconocimiento presentada por las escuelas será comunicada previamente ante la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Gobierno Vasco y ante el Departamento de Cultura de la Diputación Foral que hubiese otorgado el reconocimiento por si modificase las condiciones, en cuyo caso tal modificación deberá ser expresamente aprobada por dichos organismos.

Artículo 12.- Los contenidos de los cursos de Animación Sociocultural impartidos por las Escuelas debidamente reconocidas no podrán estar en ningún caso incluidos en el desarrollo de ningún otro tipo de curriculum académico, debiendo observarse en todo momento la especificidad de los cursos de Animación Sociocultural tanto en los contenidos como en su impartición.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de Agosto de 1988.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

Gasteiz, 1988ko abuztuak 30.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

ERASKINA.

1. Oinarritzko gaikuntzarako urratsa.

Landu beharreko alorrek

1.1. Susperketa soziokulturalaren oinarri teorikoak eta funtsak: Antropología, Pedagogía, Soziología, Síkología.

1.2. Susperketa soziokulturalaren eremuak eta modalitateak.

1.3. Suspetzaile soziokulturalaren egitekoa eta profila; tipologías.

ANEXO

1. Etapa de formación troncal.

Areas a desarrollar:

1.1. Bases teóricas y fundamentos de la Animación Sociocultural: Antropología, Pedagogía, Sociología, Síkología.

1.2. Ambitos y modalidades de la Animación Sociocultural.

1.3. Papel y perfil de animador sociocultural; tipologías.

- 1.4. Errealitatea aztertzeko metodoak eta ikerketa sozialerako teknikak.
- 1.5. Teknikak eta komunikabideak, adierazpide eta ihardute soziala.
- 1.6. Euskadiko hezkuntza, kultura eta giza-errealitatearen azterketa. Kultur eta Gizarte-Zerbitzuen politika Euskal Herriko Autonomi Elkartean.
- 1.7. Elkargintzaren eta horren barruan dauden era-kundeen analisia.
- 1.8. Susperketa Soziokulturala eta ekonomia sozialeko ekimenak bultzatzea.
- 1.9. Egitarau eta Zerbitzu soziokulturalak antolatzea eta planifikatzea.
- 1.10. Egitarau eta zerbitzu soziokulturalen kudeaketa, administrazioa eta ebaluaketa.
2. Espezializaziorako urrats teoriko-praktikoa.
- 2.1. Ihardute-sektoreen alorra.
- 2.1.1. Haurrak.
- 2.1.2. Gazteria.
- 2.1.3. Helduak.
- 2.1.4. Hirugarren Adina.
- 2.1.5. Komunitatea.
- 2.1.6. Marginazioa.
- 2.2. Teknika eta baliabideen alorra.
- 2.2.1. Komunikazioa.
- 2.2.2. Susperketa.
- 2.2.3. Adierazpidea.
- 2.2.4. Informazioa.
- 2.2.5. Ingurugiro-hezkuntza.
- 2.2.6. Osasunaren aldeko hezkuntza.
- 2.2.7. Turismoa.
- 2.2.8. Marketing soziala.
- 2.2.9. Kudeaketa eta administrazioa.
- 2.2.10. Kultur ondarea eta gaurko kultura.
- 2.2.11. Bestelakoak...

2080

Kultura eta Turismo Sailaren 1988eko Irailearen 2ko AGINDUA, euskarazko aldizkako argitalpenentzako dirulaguntzen ematea araupetzen duena.

Eusko Legebiltzarrek onarturiko azaroaren 24eko 10/1982 «Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarritzko» Legearen 22.atala dela medio, giza-komunikabi-deetako albisteak euskaraz eta gazteleraaz jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herriar guztiei, horretarako Eusko Jaurlaritzak beharrezko izan daitzen neurriak hartu beharko lituzkeelarik. Aitortutako eskubide hori bermatzeko, aipaturiko Legearen 25.atalak dioena kon-tutan izanik, Eusko Jaurlaritzak hartzen du bere gain, besteak beste, euskarazko aldizkarigintza suspertu, su-zatu eta babesteko erantzukizuna.

- 1.4. Métodos de análisis de la realidad y técnicas de investigación social.
- 1.5. Técnicas y medios de comunicación, expresión e intervención social.
- 1.6. Análisis de la realidad social, cultural y educativa de Euskadi. Política cultural y de Servicios Sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- 1.7. Análisis del asociacionismo y organizaciones de pertenencia.
- 1.8. Animación Sociocultural y promoción de iniciativas de economía social.
- 1.9. Organización y planificación de programas y servicios socioculturales.
- 1.10. Gestión, administración y evaluación de programas y servicios socioculturales.
2. Etapa teórico-práctica de especialización.
- 2.1. Área de sectores de intervención.
- 2.1.1. Infancia.
- 2.1.2. Juventud.
- 2.1.3. Adultos.
- 2.1.4. Tercera Edad.
- 2.1.5. Comunitaria.
- 2.1.6. De la marginación.
- 2.2. Área de técnicas y recursos.
- 2.2.1. De comunicación.
- 2.2.2. De animación.
- 2.2.3. De expresión.
- 2.2.4. De información.
- 2.2.5. De educación ambiental.
- 2.2.6. De educación por la salud.
- 2.2.7. De turismo.
- 2.2.8. De marketing social.
- 2.2.9. De gestión y administración.
- 2.2.10. Herencia cultural y cultura actual.
- 2.2.11. Otras...

2080

ORDEN de 2 de Septiembre de 1988, del Departamento de Cultura y Turismo, por la que se regula la concesión de subvenciones a las publicaciones periódicas en euskara.

De conformidad con el artículo 22 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, «Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara», se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a ser informados por los medios de comunicación social tanto en euskara como en castellano y, a tal efecto, el Gobierno deberá tomar cuantas medidas sean necesarias. A fin de garantizar dicho derecho y teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 25 de la Ley anteriormente citada, el Gobierno hace suya la responsabilidad de promocionar y proteger, entre otras, las publicaciones periódicas en euskara.